

ESTILO ARAUAK

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO ALDIZKARIETARAKO

American Psychological Association elkartearen argitalpenen gidaliburuan oinarrituta.

(3. argit. ingelesezko 6. argitalpenetik itzulia Mexiko-Bogota: El Manual Moderno)

<https://www.apa.org/pubs/books/4200073.aspx>

<http://www.apastyle.org/manual/>

AURKIBIDEA

TESTUAN ERREFERENTZIAK AIPATZEA	2
Egile bakarraren lana	2
Hainbat egileren lana	2
Taldeak direnean egile	2
Identifikatu gabeko egileak edo anonimoak	3
Bi lan edo gehiago parentesi artean	3
Obra klasikoak	3
Aurrez aurreko komunikazioak	3
Aipuak parentesi arteko testuetan	4
ERREFERENTZIEN ZERRENDA.....	4
Aldizkariak	4
Liburuak, kontsulta liburuak eta liburuen kapituluak	5
LIBURU OSOAK	5
LIBURU BATEN KAPITULUA EDO KONTSULTA LIBURU BATEN SARRERA	6
Kongresuen eta sinposioen aktak	7
Doktore-tesiak eta maisutza-tesiak	7
Ikus-entzunezko baliabideak	7
Datu eta software multzoak	8
Argitaratu gabe dauden edo modu informalean argitaratu diren lanak	8
Konpilazioak eta artxiboko dokumentuak	9
Interneteko foroak, helbide elektronikoen zerrendak eta bestelako online komunitateak	9
Erreferentzien ordena	10
I. eranskina: Aipatzeko oinarrizko estiloak.....	11
II. eranskina: Laburdurak	12

TESTUAN ERREFERENTZIAK AIPATZEA

Erreferentzia bibliografiko hutsak testu barruan jarriko dira, inoiz ere ez orri oinean. Egilea-data aipu sistema erabiliko da. Testuko aipu guztiak alfabetikoki ordenatuko dira, artikulua-aren bukaeran agertzen den erreferentzien zerrendan. Testuan aipatutako erreferentzia bakoitzak erreferentzien zerrendan agertu behar du, eta zerrendako sarrera bakoitza testuan aipatu behar da.

Testuaren barruan, lehen deitura agertuko da. Erreferentzien zerrendan, bi deiturak agertuko dira, horiek jakinez gero.

Egilearen deitura eta argitalpenaren urtea jaso behar dira testuan, dagokion puntuan. Egilearen izena azalpenaren barruan agertzen bada, urtea soilik aipatuko da, parentesi artean. Horrez gain, orrialdearen edo orrialdeen zenbakia ere adierazi behar da, koma batekin bereizita eta p. edo pp. laburduren ondoren (artikulu euskaraz idatzi bada, or. laburdura erabiliko da):

Lekuonak (1966, 7. or.) hiru puntutan laburtu zuen bere iritziz herritarrek zergatik ez zituzten kanta herrikoiak abesten.

Egile bakarraren lana

Egilearen izena ez bada azalpenaren zati, izena eta urtea parentesi artean jarri behar dira, biak koma batez bereizita. Jarraian, orrialdearen edo orrialdeen zenbakiak jarri behar dira, dagokion laburdurarekin:

Harreraren garapenean eragina duten egituren artetik, handienari erreparatu behar zaio: botere egitura bermatzen duen antolakuntza politikoa (Johnson, 1995, 4. or.).

Hainbat egileren lana

Lan batek bi egile dituenean, biak aipatu behar dira testuan, erreferentzia agertzen den bakoitzean. Lan batek hiru, lau edo bost egile dituenean, lehenbiziko aldian, denak aipatu behar dira, eta hurrengoetan, lehen egilearen deitura soilik agertuko da, et al. laburdurarekin batera (letra etzanik gabe). Halaber, urtea ere adierazi behar da, eta orrialde zenbakia, halakorik badago. Lehen deitura eta urtea bi erreferentzian berak badira, erreferentzia horiek bereizteko beharrezkoak diren deiturak erantsiko dira, eta et al. laburdura, gero.

Parentesi artean hainbat egile aipatzen direnean & sinboloa erabili behar da.

Lan batek sei egile edo gehiago baditu, aipu guztietan, lehen egilearen deitura, et al. laburdura (letra etzanik gabe), urtea eta orrialdea agertu behar dira. Lehen deitura eta urtea bi erreferentzian berak badira, erreferentzia horiek bereizteko beharrezkoak diren deiturak erantsiko dira, eta et al. laburdura, gero.

Argitalpenetan deitura bera duten bi egile nagusi edo gehiago badaude, lehen egilearen inisialak adierazi testuko aipu guztietan, argitalpen urtea desberdina bada ere.

Taldeak direnean egile

Lana talde batek (korporazioak, elkarteak, erakundeak, etab.) egin badu, izena luzea bada eta laburdura ezaguna edo ulergarria bada, bigarren aiputik aurrera izena laburtzen ahal da. Laburra bada edo laburdura ez bada erraz ulertzeko modukoa, izen osoa idatzi.

Kontsultatu dokumentu honen bukaeran jasotako «[Aipu motak](#)» eranskina, egile kopuruaren arabera dauden oinarrizko aipu estiloak ikusteko.

Identifikatu gabeko egileak edo anonimoak

Lan batek egilerik ez duenean, testuaren barruan erreferentzien zerrendaren lehen hitzak eta urtea adierazi behar dira. Artikuluaren izenburuen, kapituluaren edo interneteko orrien kasuan, komatxoak erabili, eta aldizkariaren edo liburuen izenburuen kasuan, berriz, letra etzana.

Erreferentzietan egilea “Anonimoa” gisa agertzen bada, testuan hitz horrekin izendatuko da. Erreferentzien zerrendan, *Anonimoa* hitza hartuko da oinarri, alfabetikoki antolatzeko.

Lege materialen erreferentziak egilerik gabeko lan gisa aipatu behar dira, eta erreferentziaren lehen hitzak eta urtea aipatu.

Bi lan edo gehiago parentesi artean

Aipu batean bi lan edo gehiago jarri behar direnean parentesi berean, aipuak alfabetikoki antolatu behar dira, erreferentzien zerrendan agertzen diren ordenan. Aipuak puntu eta komaz bereizi behar dira.

(García, 2012; Urrutia, 2016)

Egile berek egindako lanen kasuan, deituren ondoren, argitalpenaren urtea jarri behar da. Kronologikoki antolatuko dira, eta prentsako lanak bukaeran jarri. Bi argitalpen urte berekoak badira, *a*, *b*, *c*... atzizkiak jarri behar dira horietako bakoitzaren ondoren. Erreferentzien zerrendan, iturri horiek alfabetikoki ordenatuko dira, izenburuaren arabera, eta han esleituko zaizkie atzizkiak.

(García, 2012, 2016a, 2016b prentsan).

Obra klasikoak

Argitalpenaren data aipatzea lekuz kanpo dagoenean (adibidez, testu oso zaharren kasuan), erabilitako itzulpenaren urtea aipatu, *itzul*. laburduraz lagunduta, edo kontsultatuko bertsioaren urtea, *bertsioa* hitzaz lagunduta. Jatorrizkoaren data ezagutuz gero, aipuan adierazi.

(Aristoteles, 1931ko itzul.)

James (1890/1983)

Lan klasiko garrantzitsuak badira, hala nola lan greko zaharrak edota erlijio lan klasikoak, ez da erreferentzietan sarrerarik txertatu behar. Lehenbiziko aipuan, erabilitako bertsioa identifikatu. Lan klasikoaren zatiak aipatzean (Biblia eta Korana, esaterako), liburukien, kapituluaren, bertseten edo eresien zenbakiak erabili, orrialde zenbakien ordeztu:

1 Kor. 13:1 (Jerusalemgo Biblia)

(Korana 5:3-4)

Aurrez aurreko komunikazioak

Aurrez aurreko komunikazioak ez dira erreferentzien zerrendan jasotzen, eta testuan soilik aipatzen dira. Igorlearen inisialak eta deitura adierazi, eta data ahalik eta zehatzena ere bai:

M. Goñi (aurrez aurreko komunikazioa, 2016ko apirilak 15)

Aipuak parentesi arteko testuetan

Parentesi arteko testuetan agertzen diren aipuen kasuan, data komak artean jarri, kako zuzenak erabili ordez.

ERREFERENTZIEN ZERRENDA

Testuan espresuki aipaturiko erreferentzia bibliografiko guztiak eta soilik testuan berariaz ageri direnak sartuko dira testuaren bukaeran. Bi baldintza hauek betetzen ez dituzten erreferentzia guztiak baztertu eginen dira.

Egilearen deitura letra xeheekin joanen da, salbu eta deitura bakoitzaren inisiala. Horren ondotik izenaren inisialak joanen dira letra larriz eta puntua azkenik. Egile bat baino gehiago dagoenean, egileak komekin banatuko dira, salbu eta azkena, aurrez "&" zeinuarekin joanen baita. Jarraian urtea idatziko da parentesi artean eta puntua itxierako parentesiaren ondotik.

Aldizkariak

Aldizkarietako artikulua honela aipatuko dira: izenburua letra biribilez eta komatxorik gabe, puntua (.), aldizkariaren izena kurtsibaz, jarraian koma eta liburukia zenbaki arabiarrekin eta kurtsiban, koma (,) eta artikulua guztiko orriak edo soilik aipurako erabilitakoak.

Aldizkarietako artikulua

Egilea, A. A., Egilea, B.B. & Egilea, C. C. (urtea). Artikulua izenburua. *Argitalpenaren izenburua*, xx, or-or.

Ibáñez Artica, M. (2013). Jetones medievales con el escudo de Navarra. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 25, 5-142.

Online aldizkarietako artikulua DOI koderik gabe

Egilea, A. A., Egilea, B.B. eta Egilea, C. C. (urtea). Artikulua izenburua. *Argitalpenaren izenburua*, xx, or-or. <http://www.xxxxxxxx> helbidetik berreskuratua

Ibáñez Artica, M. (2013). Jetones medievales con el escudo de Navarra. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 25, 5-142. <http://culturanavarra.es/uploads/files/01-TAN25.pdf> helbidetik berreskuratua.

Ez dira adieraziko berreskuratze datak, ez bada iturriaren materiala denborarekin aldatu daitekeelako.

Online aldizkarietako artikulua DOI kodearekin

DOI bat esleitu bazaio argitalpenari, honek URLa ordeztu du.

Egilea, A. A., Egilea, B.B. & Egilea, C. C. (urtea). Artikulua izenburua. *Argitalpenaren izenburua*, xx, or-or. doi: xx.xxxxxxxx

Rubio Álvarez A., Molina Alarcón M. & Hernández Martínez, A. (2017). Factores asociados a la pérdida sanguínea en partos precipitados. *Anales del Sistema Sanitario de Navarra*, 40(2), 237-245. doi: [org/10.23938/ASSN.0030](https://doi.org/10.23938/ASSN.0030).

Egilerik gabeko artikuluak

Artikuluaren izenburua. *Argitalpenaren izenburua*, xx, or-or.

<http://www.xxxxxxxx> helbidetik berreskuratua.

Bibliografia. *Fontes Linguae Vasconum*, 11, 287-288. <http://culturavarra.es/es/numero-11> helbidetik berreskuratua.

Egilerik gabeko lanak alfabetikoki antolatzeko, izenburuaren lehenbiziko hitz garrantzitsua hartu oinarritzat.

Testuan, izenburu laburtua erabili (edo izenburu osoa, berez laburra bada) eta parentesi barruko aipuak komatxo artean jarri: ("Izenburua", 2006).

Egunkarietako artikuluak

Egilea, A. A., (xxxxeko hilak xx). Artikuluaren izenburua. *Argitalpenaren izenburua*, xx. or.-or.

Larra, M. J. de. (1836ko martxoak 26). A beneficio del señor López. *El Español*, 1.-4. or.

Egunkarietako artikuluaren orrialde zenbakien ondoren, or. jarri.

Artikuluak ez bada ondoz ondoko orrialdeetan agertzen, orrialde zenbaki guztiak adierazi, koma batekin bereizita (adibidez, 1., 3., 5.-7. or.)

Online material osagarrien kasuan, edukiaren deskribapena eman kako zuzen artean, izenburuaren ondoren: [Mapa].

Erreferentzia batek zazpi egile dituenean, erreferentzien zerrendan egile guztien izenak aipatu behar dira.

Testuaren barruan, berriz, aipu zuzen hau erabili: (Egilea et al., 2004).

Lana argitaratzeko eguna gerturatu ahala, erreferentziak eguneratu, eta, ahal bada, iturrien azken bertsioak aipatu.

Liburuak, kontsulta liburuak eta liburuaren kapituluak

LIBURU OSOAK

Liburu osoak. Bertsio inprimatua

Liburuak honela aipatuko dira: izenburua kurtsibaz, puntua (.), argitalpenaren tokia, bi puntu (:) eta argitaletxea.

Egilea, A. A. (urtea). *Izenburua*. Tokia: Argitaletxea.

Carrasco Pérez, J. & Beroiz Lazcano, M. (2009). *Registros de la Casa de Francia: Carlos I el Calvo: 1328*. Iruña: Nafarroako Gobernuak.

Elektronikoak soilik diren liburuak

Egilea, A. A. (urtea). *Izenburua*. <http://www.xxxxxxx> helbidetik berreskuratua.

Hainbat egile. (2017). *Discurso, memoria y representación. La nobleza peninsular en la Baja Edad Media*. <http://culturavarra.es/es/libros> helbidetik berreskuratua.

Egilea, A. A. (urtea) *Izenburua*. doi: xxxxx

Editorea, A. A (arg.). (urtea). *Izenburua*. Tokia: Argitaletxea.

Berrargitaratutako liburuen bertsio elektronikoak

Egilea, A. A. (1953). *Izenburua*. <http://www.xxxxxxx> helbidetik berreskuratua (jatorrizko lana 1900ean argitaratu zen).

Testuan, aipu hau erabili: (Egilea, 1900/1953).

Hainbat liburuki dituen lana

Koch, S. (arg.). (1959-1963). *Psychology: A study of science* (1.-6. libk.). New York, NY: McGraw-Hill.

Testuan, aipu hau erabili parentesi artean: (Koch, 1959-1963).

LIBURU BATEN KAPITULUA EDO KONTSULTA LIBURU BATEN SARRERA

Liburu baten kapitulua, inprimatutako bertsioa

Egilea, A. A. & Egilea, B. B. (urtea). Kapituluaren izenburua. In A. Editorea, B. Editorea & C. Editorea (arg.), *Liburuaren izenburua* (xxx.-xxx. or.). Tokia: Argitaletxea.

Aurell, M. (2016). La Noblesse au XIII^e siècle: paraître, pouvoir et savoir. In *Discurso, memoria y representación. La nobleza peninsular en la Baja Edad Media* (7.-32. or.). Iruña: Nafarroako Gobernua.

Online kontsulta liburu edo lan bateko kapitulua edo sarrera

Egilea, A. A. & Egilea, B. B. (urtea). Kapituluaren izenburua edo sarrera. In A. Editorea & B. Editorea (arg.), *Liburuaren izenburua* (xxx.-xxx. or.). <http://www.xxxxxxx> helbidetik berreskuratua.

Online kontsulta liburu edo lan bateko kapitulua edo sarrera DOIrekin

Egilea, A. A. & Egilea, B. B. (urtea). Kapituluaren izenburua edo sarrera. In A. Editorea & B. Editorea (arg.), *Liburuaren izenburua* (xxx.-xxx. or.). doi: xxxxxxxx

Egilerik gabeko kontsulta lan baten sarrera

Egilearen posizioa aurreratzen da.

Sarreraren izenburua. (urtea). In A. Editorea (arg.), *Kontsulta lanaren izenburua* (xx. argit., xx. libk., xxx.-xxx. or.). Tokia: Argitaletxea.

Sarreraren izenburua. (d.g.), *Kontsulta lanaren izenburua* (xx. argit., xx. libk.). <http://www.xxxxxxxx> helbidetik berreskuratua.

Alonso García, Amado. (d.g.) In *Gran Enciclopedia de Navarra*. http://www.enciclopedia.navarra.com/?page_id=2948 helbidetik berreskuratua.

Online bertsioak inprimatutako bertsio bati erreferentzia egiten badiu, argitalpenaren zenbakia adierazi, izenburuaren ondoren.

Liburu baten kapitulua, sail bateko liburuki batean

Egilea, A. A. (urtea). Kapituluaren izenburua. In B. B. Editorea (sailaren arg.), *Sailaren izenburua: x. libk. 7. Liburukiaren izenburua* (140.-146. or.). doi: xxxxxxxx.

Egilea eta editorea pertsona bera direnean, *Egilea* hitza erabili editorearen izen gisa.

Parentesi artean, argitalpenari, liburuki zenbakiei eta orrialde zenbakiei buruzko datuak eman (esaterako, berrikusitako argitalpena den, liburuki zenbakia eta kapituluaren orrialde tartea). Informazio hori izenburuaren ondoren agertzen da, eta puntua parentesiaren ondoren jartzen da: (berr. argit.) edo (xx. libk., xxx.-xxx. or.). Ezohiko informazioa behar denean testua identifikatzeko eta berreskuratzeko, edukiaren deskribapena eman izenburuaren ondoren: [Liburuxka].

Liburuki zenbakiak zenbaki arabiarrekin emanen dira. Zenbaki erromatarrak izenburuaren zati direnean baino ez dira beren horretan mantenduko.

Interneteko prentsa lan edo bertsio iragankorren kasuan, argitalpenaren egoera eguneratu, artikulua inprimatu aurretik azkenekoz berrikustean.

Kongresuen eta sinposioen aktak

Liburu batean argitaratutako aktak aipatzeko, liburuaren edo liburu-etako kapituluaren formatu bera erabili.

Argitaratu ohi diren aktak

Egilea, A. A. (urtea). Izenburua. *Kongresuaren edo sinposioaren izena*, 105. 56-63. doi: xxxxxxxx.

Doktore-tesiak eta maisutza-tesiak

Datu baseetan eskuragai dauden doktore-tesien edo maisutza-tesien kasuan, erreferentzia eredu hau erabili:

Egilea, A. A. (urtea). *Doktore-tesiaren edo maisutza-tesiaren izenburua* (dokto-re-tesia edo maisutza-tesia). Datu basearen izena datu basetik berreskuratua. (Sarrera edo eskaera zk.)

Argitaratu gabeko tesien kasuan, eredu hau erabili:

Egilea, A. A. (urtea). *Doktore-tesiaren edo maisutza-tesiaren izenburua* (dokto-re-tesia edo maisutza-tesia). Erakundearen izena, Tokia.

Ochoa Larraona, E. (2013). *Arquitectura señorial navarra en el siglo XVI: Pamplona, Estella, Tafalla y Tudela* (argitaratu gabeko dokto-re-tesia). Nafarroako Unibertsitatea, Iruña.

Lana datu base batean erabilgarri badago, parentesi artean jarri sarrera edo eskaera zenbakia, erreferentziaren bukaeran.

Ikus-entzunezko baliabideak

Honako hauek hartzen dira ikus-entzunezko baliabidetzat: filmak, irrati edo telebista emanaldiak (*podcast*-ak barne) eta material estatikoa, hala nola mapak, material grafikoa eta argazkiak.

Filmak

Ekoizlea, A. A. (ekoizlea), & Zuzendaria, B. B. (zuzendaria). (Urtea). *Filmaren izenburua* [filma]. Jatorrizko herrialdea: Estudioa.

Musika grabaketak

Idazlea, A. (copyright urtea). Abestiaren izenburua [B. B. Artistak grabatua, idazleaz bestelakoa bada]. *Albumaren izenburua* [Grabatzeko bitartekoa: CD, diskoa, kasetea, etab.] Tokia: Diskoetxea. (Grabaketa data, abestiaren copyright dataz bestelakoa bada).

Telebista edo irrati sail bateko atalen kasuan, liburu baten kapitulu batekin erabiltzen den eredu bera erabiltzen da, baina gidoilaria eta zuzendaria aipatzen dira, egilearen ordean, eta ekoizlea, berriz, editorearen ordean.

Datu eta software multzoak

Software eta programazio lengoia estandarren kasuan, ez da sarrerarik txertatu behar erreferentzietan; adibidez, Microsoft Word edo Excel, Java, Adobe PhotoShop, SAS eta SPSS. Testuan, softwarearen izena zuzen idatzi, bertsio zenbakiarekin batera. Software berezituaren edo banaketa mugatua duten ordenagailu programen kasuan, sarrera bat jarri behar da erreferentzietan.

Egile eskubideen jabea, A. A. (Urtea). Programaren izena (Bertsio zenbakia) [Formaren deskribapena]. Tokia: Ekoizlearen izena.

Egile eskubideen jabea, A. A. (Urtea). Programaren izena [Formaren deskribapena]. <http://xxxx> helbidetik berreskuratua.

Ez erabili letra etzana software, programa edo lengoaien izenak idazteko.

Datu multzoen izenburua letra etzanez idatzi behar da.

Software horren jabetza eskubideak pertsona jakin batek baditu, egiletzat aipatu haren izena; bestela, erreferentzia horiek egilerik gabeko lan gisa aipatu.

Hala badagokio, parentesi artean adierazi bertsio zenbakia, izenburuaren ondoren.

Ez jarri punturik izenburuaren eta kako zuzenen barruko materialaren artean.

Argitaratu gabe dauden edo modu informalean argitaratu diren lanak

Argitaratu gabeko lanek honako hauek hartzen dituzte barne: egiten ari direnak, argitaratzeko aurkeztu direnak edo bukatuta egon arren argitaratzeko aurkeztu ez direnak. Katetoria honetan sartzen dira, halaber, formalki argitaratu ez arren webgune pertsonal batean edo erakunde baten webgunean, artxibo elektronikoetan (ERIC, esaterako) edo inprimatu aurreko artxibo batean dauden lanak.

Egilea A. A. (urtea). *Eskuidatziaren izenburua*. Argitaratu gabeko eskuidatzia [edo "Argitaratzeko aurkeztutako eskuidatzia" edo "Prestatzen ari den eskuidatzia"].

Lana artxibo elektroniko batean badago, bukaeran informazio hori adierazi.

Erreferentziak maiz eguneratu, lana argitaratu aurretik, eta, ahal denean, iturrien azken argitalpena aipatu.

Konpilazioak eta artxiboko dokumentuak

Egilea, A. A. (Urtea, hilabetea, eguna). *Materialaren izenburua*. [Materialaren deskribapena].
Konpilazioaren izena (sailkapen zenbakia, kutxa zenbakia, artxiboaren zenbakia edo izena, etab.).
Gordailuaren izena eta tokia.

Formatu orokor hori aldatzen ahal da, honako hauek kontuan hartuta: materialak aurkitzeko beharrezkoa den informazioaren zehaztasun maila, konpilazio mota edo deskribapen datu osagarriak behar badira (adibidez, gutun baten itzulpena). Egileek erabakitzen ahal dute haien konpilazio pertsonaletako gutuneria zerrendan jasotzea, baina, beste pertsona baten konpilazio pribatuetako gutuneria zerrendatzeko, bildumagilearen baimena beharko dute.

Kako zuzenak erabili dokumentuan agertzen ez den informazioa emateko. Galdera ikurrak erabili izenen eta daten gaineko zalantzak daudenean, eta ca. (circa, baina ez letra etzanez), datak gutxi gorabeherakoak badira.

Ahozko elkarrizketa eta istorioen kasuan, elkarrizketatua jaso behar da zerrendan, egilearen ordeiz. Elkarrizketatzailearen izena deskribapenean jasoko da.

Gordailu bateko gutuna

Egilea, A. A., (urteko hilak eguna). [Hartzailea B. B.-rentzako gutuna]. Artxiboaren edo konpilazioaren izena (xxx. funtsa, xxx. kutxa, xxx. paper sorta), Tokia.

Konpilazio pribatu bateko gutuna

Egilea, A. A., (urteko hilak eguna). [Hartzailea B. B.-rentzako zuzendutako gutuna (C. Itzultzailearen itzul.)]. Funtsoaren jabearen izenaren kopia.

Artxibo bateko gutunen konpilazioa

Egilea, A. A. (1930-1967). Gutuneria. Funtsoaren izena. Artxiboaren izena, Tokia.

Konpilazio horretako gutun zehatzen aipuak testuan:

(Egilea, A. A., 1930-1967, Egileak B. B. Hartzaileari bidalitakoa, urteko hilak eguna).

(Egilea, A. A., 1930-1967, B. B. Hartzaileak Egileari bidalitakoa, urteko hilak eguna).

Erraz berreskuratu ezin diren gutuneria eta gutun pribatuak aurrez aurreko komunikaziotzat hartuko dira, eta testuan bakarrik aipatuko dira.

Interneteko foroak, helbide elektronikoen zerrendak eta bestelako online komunitateak

Egilea, A. A. (Urtea, hilabetea, eguna). Mezuaren izenburua [Formaren deskribapena]. <http://www.xxxxxxx>
helbidetik berreskuratua

Egilearen izen osoa lortzen ahal bada, zerrendatu deitura lehenbizi eta inizialak ondoren. Ezizena baino ez bada agertzen, hori erabili.

Adierazi zehatz-mehatz zer egunetan argitaratu zen.

Dataren ondoren, mezuaren gaia idatzi (*thread* (egikaritze haria) ere deitzen zaio); ez idatzi letra etzanez. Kako zuzen artean, mezuaren deskribapena eman, izenburuaren ondotik.

Erreferentzien ordena

Erreferentziak alfabetikoki zerrendatuko dira, egilearen deituraren arabera edo, hala badagokio, lehenbiziko egilearen arabera. Jarraian, izenaren inisialak adieraziko dira, eta, egile bakoitzaren barnean, ordena kronologikoaren arabera antolatuko dira. Egile eta urte bereko argitalpen bat baino gehiago aipatzen denean, letra xeheak gehituko zaizkio, hurrenez hurreneko ordena alfabetikoan eta espaziorik utzi gabe:

Alfabetikoki ordenatzean, hitzen arteko tartea kontuan hartu: “zerbaiten aurrean ez dago ezer”.

García, P.

Garciandía, A.

Esaldi preposizionalak aldi batera utzi, eta deituraren atzean jarri.

Barca, de la

Zenbakiak dituzten sarrerek kronologikoki ordenatuko dira.

Tibalt I.a

Tibalt II.a

Egile berak hainbat lan dituenean:

Egilearen izena aipatu lehenbiziko erreferentzian eta hurrengoetan. Ez erabili marratxorik errepikatutako deituren ordez.

Sarreran egile bakarra agertzen bada (edo egile berak eta ordena berean), argitalpen urtearen arabera ordenatzen dira, eta zaharrena jartzen da lehenbizi. Argitalpenaren data bera bada, alfabetikoki ordenatuko dira, izenburuaren arabera. Ez dira izenburuan agertzen ahal diren artikulua kontuan hartuko (Un, Una, El, La). Urtearen ondotik, a, b, c hizkiak jarri, letra xehez eta parentesi artean. Sail bateko artikulua bada, sailean agertzen diren ordenan antolatuko dira.

Egile bakar baten sarrerek hainbat egile dituztenen aurretik jarri behar dira.

Hainbat egile dituzten sarrerek alfabetikoki ordenatu behar dira, lehen egilearen arabera. Egilea bera bada, bigarren egilea hartuko da kontuan, eta horrela ondoz ondo.

Egilerik gabeko lanak alfabetikoki antolatzeko, izenburuaren lehenbiziko hitz garrantzitsua hartu oinarritzat.

I. eranskina: Aipatzeko oinarrizko estiloak

Aipu motak	Testuan lehenbizikoz aipatzean	Testuko hurrengo aipuetan	Parentesi arteko formatua, testuan lehenbizikoz aipatzean	Parentesi arteko formatua, testuko hurrengo aipuetan
Lan batek egile bakarra badu	Deitura (urtea)	Deitura (urtea)	(Deitura, urtea)	(Deitura, urtea)
Lan batek bi egile baditu	1EgileDeitura eta 2EgileDeitura (urtea)	1EgileDeitura eta 2EgileDeitura (urtea)	(1EgileDeitura & 2EgileDeitura, urtea)	(1EgileDeitura & 2EgileDeitura, urtea)
Lan batek hiru egile baditu	1EgileDeitura, 2EgileDeitura eta 3EgileDeitura (urtea)	1EgileDeitura et al. (urtea)	(1EgileDeitura, 2EgileDeitura & 3EgileDeitura, urtea)	(1EgileDeitura et al., urtea)
Lan batek lau egile baditu	1EgileDeitura, 2EgileDeitura, 3EgileDeitura eta 4EgileDeitura (urtea)	1EgileDeitura et al. (urtea)	(1EgileDeitura, 2EgileDeitura, 3EgileDeitura & 4EgileDeitura, urtea)	(1EgileDeitura et al., urtea)
Lan batek bost egile baditu	1EgileDeitura, 2EgileDeitura, 3EgileDeitura, 4EgileDeitura eta 5EgileDeitura (urtea)	1EgileDeitura et al. (urtea)	(1EgileDeitura, 2EgileDeitura, 3EgileDeitura, 4EgileDeitura & 5EgileDeitura, urtea)	(1EgileDeitura et al., urtea)
Lan batek sei egile edo gehiago baditu	1EgileDeitura et al. (urtea)	1EgileDeitura et al. (urtea)	(1EgileDeitura et al., urtea)	(1EgileDeitura et al., urtea)
Talde bat bada egilea (laburduren bidez erraz identifikatu ahal bada)	Taldearen izena (Laburdura, urtea)	Laburdura (urtea)	(Taldearen izena [Laburdura], urtea)	(Laburdura, urtea)
Talde bat bada egilea (laburdurarik gabe)	Taldearen izena (urtea)	Taldearen izena (urtea)	(Taldearen izena, urtea)	(Taldearen izena, urtea)

II. eranskina: Laburdurak

Kapitulu	kap.
Konpilatzailea, konpilatzaileak	konp.
Koordinatzailea, koordinatzaileak	koord.
Zuzendaria	zuz.
Faksimile argitalpen	faks. argit.
Berrikusitako argitalpena	berr. argit.
Argitalpena	argit.
Argitaratzailea, Argitaratzaileak	arg.
Zenbakia	zk.
Orrialdea, orrialdeak	or.
Bigarren edizioa	2. argit.
Datarik gabe	d.g.
Edizio leku ezagunik gabe	l.g.
Osagarri	osagar.
Itzultzailea	itzle.
Liburukia, liburukiak	libk.
Eta beste batzuk	et al.